Otras edificaciones y construcciones

De justificarse su necesidad, se permitirá construir otras edificaciones vinculadas al uso principal, unidas o exentas al edificio principal. Esas edificaciones no podrán superar la altura de la edificación principal y, en conjunto, la ocupación máxima sobre rasante permitida en la parcela (42%).

Azkenik, udaltzaingoak ematen dituen zerbitzuekin lotutako eraikuntza osagarri txikiak egiteko aukera eman da, sestra gainean. Eraikuntza horiek solairu bakarrekoak, arinak eta irekiak izango dira (udaltzaingoaren motor eta ibilgailuentzako markesinak) edota altuera baxuko eraikuntza txiki itxiak, abandonatutako animaliak behin-behinekoz jasotzeko edo materialak gordetzeko.

Por último, se ha incluido la previsión de permitir la disposición de pequeñas construcciones auxiliares, sobre rasante, vinculadas con las necesidades de los servicios que presta la policía. En todo caso, se tratará de construcciones ligeras y abiertas de una sola planta (marquesinas para estacionamiento de motos y vehículos de la policía municipal) o pequeñas construcciones cerradas de baja altura para la recogida provisional de animales abandonados o guarda de materiales.



2.- Hautatu den hirigintza-tresna

Jarduketarekin, hiri-lurrean dagoen ekipamenduzko partzela baten eraikigarritasun fisikoa handitzea nahi da, udal zerbitzu publiko estrategiko bat hobetzeko.

Hori horrela, pentsatu dugu Hiri Berrikuntzarako Plan Berezia dela hirigintzako figurarik onena bere xede espezifikorako zehaztaperenak finkatzeko.

Horixe ondorioztatzen da EAeko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 71. artikuluan eta ZHAPOk 4.2.06 artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrelako plan berezi batek lege aldetik duen muga bakarra da bere egokitasuna eta beharra justifikatu behar direla, eta plan orokorraren oinarriko egitura gorde behar dela. Kasu honetan baldintza horiek bete egiten dira.

3.- Jarduera esparrua. Egungo eta geroko hirigintza-antolamendua

Plan Berezi honek mugatutako jarduketa-esparruak, guztira, 1.455,55 m²-ko azalera hartzen du. Jarduketa esparruaren mugak informazio planoetan eta antolamendu xehatuko planoetan irudikatuta daude.

Plan Bereziak ez du aldatuko lurzoruen egungo hirigintza-sailkapena edo kalifikazioa. Bere xedea da udaltzaingoak zerbitzu publikoa hobetzeko duen beharrei erantzuna ematea, dagoen eraikina berrituz eta handituz, beti ere, ondare historiko eta arkitektonikoaren katalogoan azaltzen den babes gradua kontutan hartuta.

Ondorioz, Plan Berezian mugatutako jarduketa-eremuaren hirigintza-kalifikazioa zuzkidura eta ekipamendu partzela jarraituko du izaten, eta plan espezialarengatik, hiri zerbitzuen erabilerarako (4. erabilera, 1. mota) izango da.

Proposamen horrek ez du aldatzen Zarautzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren funtsezko egitura.

2.- Instrumento urbanístico seleccionado

Con la actuación se pretende ampliar la edificabilidad física de una parcela de equipamiento en suelo urbano con la finalidad de mejorar un servicio público municipal estratégico.

Por todo ello, se ha pensado que el Plan Especial de Renovación Urbana es la mejor figura urbanística para la consolidación de las determinaciones del objeto específico.

Eso mismo se concluye de lo dispuesto en el artículo 71 de la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo de la CAPV, y del artículo 4.2.06 del PGOUZ. El único límite que tiene un plan especial desde el punto de vista legal, es el de justificar su adecuación y necesidad, manteniendo la estructura básica del plan general. En este caso esas condiciones se cumplen.

3.-Ambito de actuación. Ordenación urbanística actual y futura.

El ámbito de actuación delimitado por este Plan Especial incluye la totalidad de la parcela, 1.455,55 m² de superficie. Los límites del ámbito de actuación se han representado en los planos de información y ordenación.

El Plan Especial no modifica la clasificación urbanística ni la calificación. El objetivo es dar una respuesta adecuada a la necesidad de mejora del servicio público de policía municipal, reformando y ampliando un edificio existente, teniendo en cuenta el grado de protección otorgado en el catálogo de patrimonio histórico y arquitectónico del plan general.

Por consiguiente, la calificación de la parcela de actuación delimitado por el Plan Especial seguirá siendo la de parcela de dotación y equipamiento y, como consecuencia del plan especial, destinada a servicios urbanos y administrativos (Uso 4, Tipo 1).

La propuesta no cambia la estructura básica del Plan General de Ordenación Urbana de Zarautz.



4.- Plan Bereziaren agiriak

Planaren xedea kontuan hartuta, agirien artean nahiko iruditzen zaizkigu justifikazio memoria, ordenantzak eta informazio eta antolamenduko planoak. Hala eta guztiz ere, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 68. eta 69 artikuluetan eta Estatuko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 14.eta 15. artikuluetan adierazitakoari jarraiki, jasangarritasun ekonomikoari buruzko justifikazioa aztertu da.

Aurrekoan oinarrituta, Plan Bereziak ondorengo agiriak izango ditu:

- (1).- Planaren egokitasuna eta egokiera adierazteko Informazio eta Justifikazio Memoria.
- (2) Hirigintzako Arauak.
- (3) Gauzatzeko jarraibideak eta Azterketa Ekonomiko Finantzarioa.
- (4) Informazio Planoak eta Antolamendu Xehatuko Planoak.

ERANSKINAK

- a.- Geoteknia azterlana
- b.- Zarataren eraginari buruzko azterlana

4.-Documentos del Plan Especial

Teniéndose en cuenta el objeto del Plan, parece suficiente la siguiente documentación: memoria justificativa, ordenanzas y planos de información y ordenación. Aun así, se ha analizado la viabilidad económica, tal y como se indica en los artículos 68 y 69 de la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo, y la normativa estatal contenida en los artículos 14 y 15, del Real Decreto legislativo 2/2008.

Por tanto, el Plan Especial tiene los siguientes documentos:

- (1) Memoria informativa y justificativa para expresar la adecuación y oportunidades del plan
- (2) Normativa urbanística
- (3) Directrices de Ejecución y Estudio Económico Financiero
- (4) Planos de Información y Planos de la Ordenación Pormenorizada.

ANEJOS

- a.- Estudio geotécnico
- b.- Estudio sobre el impacto sonoro



2

HIRIGINTZAKO ARAUAK
ORDENANZAS URBANÍSTICAS**1.- artikulua. Xedapen orokorrak**

a.- Hiri Berrikuntzako Plan Berezi (HBPB) honen xedea da Zarauzko udaltzaingoaren egoitza jartzea Villa Nuria, Arrate eta Iciar eraikin multzoa duen udal ekipamendu publikoko partzelan.

b.- HBPBa indarrean sartzen den unetik aplikatuko zaie eraikuntza-ekintza guztiei, eta Planak mugatutako jarduketa-eremu osoko lurzoruen eta eraikinen erabilera arautzeko izango da.

c.- Testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren sartuko dira indarrean ordenantzak, eta indarrean jarraituko dute beste batzuek indargabetzen eta/edo ordezkatzeko ez dituzten artean.

d.- Plan Berezian berariaz aurreikusi gabeko gai guztietan, Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrean xedatutakoa jarraituko da, eta, orokorrean, indarrean dagoen eta nahitaez aplikatzekoa den hirigintzako eta sektoreko legedian xedatutakoa.

2.- artikulua. Lurzoruaren hirigintza-araubidea

a.- Jarduera-eremuak 1.455,55 m²-ko azalera dauka eta plan orokorreko -OD Mendilauta -11.1 arearen barne dago.

b.- Jarduketa-eremuko lurzoru osoa kalifikazio globala ekipamenduko erabilera eta zuzkidura erabilera eta jabari publiko izango du.

Artículo 1. Disposiciones generales

a.- El objetivo de este Plan Especial de Renovación Urbana (PERU) es implantar la sede de la policía municipal de Zarautz, en la parcela de equipamiento público municipal que alberga el conjunto edificatorio de las villas Nuria, Arrate e Iciar.

b.- El PERU será de aplicación, desde su entrada en vigor, a todas las acciones edificatorias, así como a los usos de los suelos y edificación en la totalidad del ámbito de actuación delimitado por el plan.

c.- Las ordenanzas entrarán en vigor una vez haya sido publicado su texto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Su vigencia regirá mientras no sean derogadas y/o sustituidas por otras.

d.- En todo lo no previsto expresamente en el Plan Especial, se estará a lo dispuesto en el Plan General de Ordenación Urbana de Zarautz, y más genéricamente a lo previsto en la legislación urbanística y sectorial vigente de obligada aplicación.

Artículo 2.- Régimen Urbanístico del Suelo

a.- El ámbito de actuación tiene una superficie de 1.455,55 m² que forma parte del área 11-1 del plan general –OD Mendilauta-.

b.- Todo el suelo del ámbito de actuación tendrá la calificación global de uso de equipamiento y dotaciones de uso y dominio público.



3.- artikulua. Plangintzaren garapena eta jarduketa-baldintzak

a.- Planan aurreikusi den egintza gauzatzeko nahikoa izango da gauzatzeko proiektua idaztea.

b.- Lau urteko epea jarri zaio eraikin nagusiarri dagozkion lanak gauzatzeko.

Artículo 3.- Desarrollo del planeamiento y condiciones de actuación

a.- Para ejecutar las actuaciones previstas en el plan será suficiente la redacción de proyectos de ejecución.

b.- Se fija un plazo de cuatro años para la ejecución de las actuaciones correspondientes al edificio principal.

4.- artikulua. Erabilera-baldintzak

a.- Zuzkidura eta ekipamendutarako erabileraren barruan, plan bereziak esleitu dituen erabilera xehatuak dira Zarautzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren 6.5.02 eta 6.5.03 artikuluetan deskribatuta dauden hiri zerbitzuen eta administrazio zerbitzuen erabilerak (4. erabilera, 1. eta 2. motak).

b.- Bateragarriak eta onargarriak izango dira plan orokorreko 6.5.17 artikuluan aurreikusi direnak.

Artículo 4.- Condiciones de uso

a.- Dentro del uso de dotaciones y equipamiento, los usos pormenorizados asignados por el plan especial son los de servicios urbanos y administrativos, definidos en los artículos 6.5.02 y 6.5.03 del Plan General de Ordenación Urbana de Zarautz (uso 4, tipos 1 y 2).

b.- Serán compatibles y admisibles los previstos en el artículo 6.5.17 del plan general.

5.- artikulua. Eraikuntzarako baldintzak

a.- 6. artikuluan (hirigintza-fitxa) eta antolamendu xehatuko planoetan eraikuntza-aukerak eta eraikinen handitzeak zehazten dira, bai eta eraikinak izan ditzakeen gehienezko okupazio eta lerrokadurak ere.

b.- **Villa Nuria, Arrate eta Iciar** eraikin multzoa ZHAPO-ko Ondare Historiko eta Arkitektonikoaren Katalogoaren barne dago, 2. kategorikoko toki-intereseko ondasun higiezin moduan sailkatuta. Bertan, zaharberritze, kontserbazio eta apaindura eta konsolidazio esku-hartzeez gain, babes erregimenarekin bateragarriak izango diren berriztatze lanak ere onartuko dira.

Fatxadek konposizio ezaugarri bera mantenduko dute; egoera txarrean dauden aldeak konpondu eta berregin ahalko dira eta eraitsi ahalko dira gehigarri iraingarriak.

Estalkiaren zati handi baten egoera txarra dela eta, ordezkatu ahalko da egurrezko ez den beste material batez (hormigoia, metala...), baina gaur egungo konposizioa mantendu beharko da: bi isuri eta pizarrazko akabera. Teilatu-hegalaren trataera eraikin multzoaren konposizioarekin bat etorriko da. Estalkitik ateratzen diren elementuak, eraikin multzoaren diseinu arkitektonikoan integratuko dira.

Artículo 5.- Condiciones constructivas

a.- En el artículo 6 (ficha urbanística) y en los planos de ordenación pormenorizada se detallan las posibilidades constructivas y de ampliación de las edificaciones, así como su ocupación y alineaciones máximas.

b.- El conjunto de edificios conformados por las **villas Nuria, Arrate e Iciar** está incluido en el catálogo de patrimonio histórico-arquitectónico del PGOUZ, con la calificación de bien inmueble de interés local, categoría 2 (artículo 10.3.08). Se admiten obras de Restauración, Conservación y Ornato, Consolidación y Reforma, compatibles con el régimen de protección.

Las fachadas mantendrán el mismo carácter compositivo; se podrán reparar y reconstruir las partes de las mismas que presenten mal estado y se podrán demoler añadidos degradantes.

Dado el mal estado de gran parte de la cubierta se podrá sustituir por otra de material diferente a la madera (hormigón, metálica...) pero se deberá mantener la composición existente a dos aguas y acabado en pizarra. El tratamiento del alero se mantendrá en composición acorde con el conjunto del edificio. Los elementos que sobresalgan de la cubierta se integrarán en el diseño arquitectónico del conjunto del edificio.



c.- Kalitate eta higiene, segurtasun, zerbitzu eta irisgarritasun gaien arau eta erregelamendu espezifikokoak aplikatuko dira, bai eta Zarautzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko 7. tituluari jasotako eraikuntza-ordenantzak ere.

d.- Erabiltzen diren eraikuntza-materialak iraunkorrak eta ez kutsatzaileak izango dira.

e.- Ura eta energia kontsumoa aurrezteko sistemak jarriko dira. Ahal dela, energia berriztagarriak erabiliko dira energia sortzeko. Dena den, eraikinetako energia eraginkortasunari buruz Europa Batasuneko Zuzentarauak markatutako irizpideak jarraituko dira.

f.- Eraikuntza-proiektuek bermatu egin beharko dute zaraten hartze-indizeek bete egingo dituztela eraikinetarako jarritako kalitate akustikoaren helburuak, beren erabilera espezifikokoaren arabera. Igortze-mailek, berriz, udal ordenantzek araututakoa bete beharko dute.

g.- Urbanizazio osagarria: Sare orokorretako hartuneak gauzatuko dira, eta eraikinak okupatu gabeko lurzoru librea urbanizatuko da (erabilera publikoa dutenak nahiz ekipamendurako soilik erabiltzen direnak), partzelaren itxiturak barne.

h.- Eraikinaren itxiturak AAC ingeniariak egindako soinuaren inpaktuko analisira egokitu beharko da; analisi horrek 213/2012 Dekretua eta DB-HR Zarata aurkako babesaren bete beharrak eta dagozkion zuzenketa neurriak aztertu ditu eta Plan honi atxikitu zaio.

c.- Serán de aplicación las normas y reglamentaciones específicas en materia de calidad e higiene, seguridad, servicio y accesibilidad, así como las ordenanzas de edificación recogidas en el título 7 del Plan General de Ordenación Urbana de Zarautz.

d.- Los materiales constructivos a utilizar deberán ser duraderos y no contaminantes.

e.- Se establecerán sistemas de ahorro de agua y consumo energético. De ser posible, se utilizarán energías renovables para producir energía. En todo caso, se seguirán los criterios marcados en las Directivas de la Comunidad Europea relativas a la eficiencia energética de los edificios.

f.- Los proyectos de construcción y reforma deberán garantizar que los índices de inmisión de ruido cumplan los objetivos de calidad acústica establecidos para las edificaciones en función de su uso específico. Los índices de emisión deberán respetar lo regulado por las ordenanzas municipales.

g.- Urbanización complementaria: Ejecución de las acometidas a redes generales, y urbanización de los suelos libres no ocupados por la edificación, tanto los de uso público como los reservados exclusivamente para el equipamiento, incluidos cierres de parcela.

h.- La envolvente se ajustará al análisis de impacto acústico del edificio donde se valora el cumplimiento del Decreto 213/2012 y el DB-HR en cuanto a las exigencias en fachadas y sus posibles medidas de corrección, elaborado por la ingeniería AAC que se adjunta en este Plan.

6.- artikulua. Lursaileko hirigintza-fitxa

a- Eraikin Nagusia. Villa Nuria, Arrate eta Iciar.

Gehienezko eraikigarritasuna eta sestra gaineko okupazioa: Dagoena, baina pixka bat handitu ahalko da baimendutako berritze esku-hartzeen ondorioz.

Artículo 6. Ficha urbanística de la parcela

a.- Edificación principal. Villas Nuria, Arrate e Iciar.

Edificabilidad y ocupación máxima sobre rasante: La existente, que podrá incrementarse ligeramente como consecuencia de las actuaciones de reforma permitidas.



Profila: Dagoena (Behe-solairua + 1). Eraikuntzaren altuera pixka bat igo ahalko da (gehienez ere, 50 cm), forjatu jarraia erregularizatzeko eta sortzeko, eta teilatugailurraren azpian 2,20 m-ko altuera libre duen pasabidea lortzeko. Estalkia ordezkatu ahalko da, baina haren konfigurazioaren forma mantentzen bada.

Mendebaldeko fatxadaren markesina. Eraitsi ahalko da, forjatuko altuerarekin bat ez datorren eta geroago egindako interes gabeko eranskina delako.

Sotoa.

- **Gehieneko eraikigarritasun fisikoa:** Soto-solairu bakarra, gehienez ere, eraikitako 467 m²-ko okupazioarekin. Antolamendu xehatuko planoan finkatu egin dira gehienezko lerrokatadak.
- Argi-zuloak egin ahalko dira sotoari argitasun eta aireztapen naturala emateko. Horien kokapena aztertu beharko da patioaren erabilera ez oztopatzeko, erabilera nagusiaren beharren arabera, eta multzoan eta multzoaren estetikan integratuta egon beharko dira.
- Indusketarako kontuan izango da egin den azterketa geoteknikoa.

Komunikazio kaxa-bertikala.

- Kanpoan komunikazio kaxa bertikal bat eraiki ahalko da, txaletei itsatsia, solairu guztiei, sotoari barne, komunikazioa eta irisgarritasuna emateko.
- Komunikazio kaxaren estaldura eraikin-multzoan integratuko da, baina material ezberdinez egingo da, eraikin berria eta jatorrizko eraikina bereizteko eta zaharra nabarmentzeko. Bere altuerak ez du eraikin nagusiaren gailurra gaindituko.
- Antolamendu xehatuko planoan finkatu egin dira komunikazio-kaxaren gehienezko lerrokatadak.

b.- Beste eraikinak

Antolamendu xehatuko planoan finkatu diren eraikuntza-ekintzen mugen barnean, ekipamenduko erabilera nagusiari lotutako beste eraikinak egin ahalko dira.

- **Gehienezko eraikigarritasun fisikoa:** eraikitako 586 m².
- **Gehienezko okupazioa, sestra gainean:** Partzelaren okupazioa eraikinekin, eraikin nagusia barne, ezin izango du partzelaren %42 gainditu.

Perfil: El existente (PB + 1). La altura de las edificaciones podrá elevarse ligeramente (no más de 50cm), para permitir regularizar y crear un forjado continuo y habilitar un paso bajo la cara inferior de la cumbrera de 2,20 m de altura libre. La cubierta podrá ser sustituida, pero se deberá mantener su configuración en forma.

Marquesina en la fachada oeste. Se podrá derribar, por tratarse de un anexo posterior sin interés que no corresponde con alturas de forjado.

Sótano

- **Edificabilidad física máxima:** Una planta de sótano, con una ocupación máxima de 467 m² construidos. En el plano de ordenación pormenorizada se acotan las alineaciones máximas.
- Se podrán construir tragaluzes que proporcionen luz y ventilación al sótano. Se tendrá en cuenta su ubicación de manera que no impidan el uso del patio según las necesidades del uso principal y quedarán estéticamente integradas en el conjunto.
- Para la excavación se tendrá en cuenta el estudio geotécnico realizado.

Caja de comunicación vertical.

- Se podrá construir una caja de comunicación vertical exterior, adosada a las villas, para dar comunicación y accesibilidad a todas las plantas de los edificios, incluido el sótano.
- El cierre de la caja de comunicaciones deberá integrarse en el conjunto del edificio, diferenciándose en cuanto a los materiales para evidenciar lo nuevo respecto al edificio original. Su altura no sobrepasará la de la cumbrera del edificio principal.
- En el plano de ordenación pormenorizada se acotan las alineaciones máximas de la caja de comunicación.

b.- Otras edificaciones

Dentro de los límites edificatorios reflejados en el plano de ordenación pormenorizada, se pondrán construir otras edificaciones vinculadas al uso principal de equipamiento.

- **Edificabilidad física máxima:** 586 m² construidos.
- **Ocupación máxima, sobre rasante:** La ocupación de la parcela por edificaciones, incluido el edificio principal, no podrá superar el 42% de la parcela.



- **Profila:** Behe-solairua eta lehen solairua.
- **Altuera:** Ez dute eraikin nagusiaren altuera gaitutiko (Villa Nuria, Arrate eta Iciar).

- Eraikin berriak multzoan integratu beharko dira, baina material ezberdinekin egingo dira, eraikin berria eta jatorrizko eraikina bereizteko eta zaharra nabarmentzeko.

- **Perfil:** Planta baja y planta primera.
- **Altura:** No superarán la de la edificación principal (villas Nuria, Arrate e Iciar).

- Las nuevas edificaciones deberán integrarse en el conjunto, pero diferenciándose en cuanto a los materiales para evidenciar lo nuevo respecto al edificio original.

c.- Eraikuntza osagarriak

Antolamendu xehatuko planoan finkatu diren eraikuntza-ekintzen mugaren barruan, baimenduta egongo da eraikuntza txikiak eta instalazio lagungarriak egitea, sestra gainean, beti ere, ekipamenduko erabilera nagusiari eta udaltzaingoak ematen dituen zerbitzuen beharrei lotuta. Eraikuntza horiek ez dute zenbatuko aurreko epigrafeetan ezarritako partzelaren gehienezko okupazioa eta eraikigarritasun fisikoaren ondorioetarako.

Solairu bakarreko eraikuntza arin eta irekiak izango dira (udaltzaingoaren motor eta ibilgailuak aparkatzeko markesinak) edota altuera baxuko eraikuntza txiki itxiak, abandonatuko animaliak behin-behinekoz jasotzeko edo materialak gordetzeko. Eraikin nagusiarekin integrazio estetikoak lortu beharko da.

d.- Lurzoru libre ez eraikigarriak. Erabilera publikorako zuzenduko dira: oinezko sarbideak, patioak eta lorategiak. Planoetan horrela definitzen direnak erabilera publikoa izango dute. Horien mugaketa antolamendu xehatuko planoan jaso da.

c.- Construcciones auxiliares.

Dentro de los límites marcados en el plano de ordenación pormenorizada se permitirá la disposición de pequeñas construcciones e instalaciones auxiliares, sobre rasante, vinculadas y relacionadas con el uso principal y con las necesidades de los servicios que presta la policía. Estas construcciones no computarán a efectos de la ocupación máxima de parcela ni de edificabilidad física máxima establecida en los epígrafes anteriores.

Se tratará de construcciones ligeras y abiertas de una sola planta (marquesinas para estacionamiento de motos y vehículos de la policía municipal) o pequeñas construcciones cerradas de baja altura para la recogida provisional de animales abandonados o guarda de materiales. Deberá procurarse su integración estética con la edificación principal.

d.- Suelos libres no edificables. Se destinarán a pasos peatonales, patios y jardines de uso público. Los definidos como tales en los planos serán de uso público. Su delimitación se recoge en el plano de ordenación pormenorizada.



3

GAUZATZEKO JARRAIBIDEAK ETA AZTERKETA EKONOMIKO FINANTZARIOA

DIRECTRICES DE EJECUCIÓN Y ESTUDIO ECONÓMICO FINANCIERO

3.1 GAUZATZEAREN KUDEAKETA

Zarauzko Udala bera da ekipamenduaren sustatzaile eta jabea.

Eraikin nagusirako aurreikusi diren esku-hartzeak burutzeko, Plan Bereziak lau urteko epea aurreikusi du obrak egiteko, plan berezia onartzen den momentutik.

3.1 GESTIÓN DE LA EJECUCIÓN

El Ayuntamiento de Zarautz es el promotor y el propietario de la parcela de equipamiento.

Para la ejecución de las actuaciones previstas en el plan especial para la edificación principal, se ha previsto un plazo de cuatro años, constados desde la aprobación del plan especial.

3.2 AZTERKETA ETA JASANGARRITASUN EKONOMIKOA

Jarduketa-eremua urbanizatuta dago. Ez da urbanizazio-kargarik aurreikusi, honako hauek izan ezik: eraikinari lotutako urbanizazio obra osagarri txikiak eta sare eta zerbitzu nagusien arteko hartuneak, eta, egonez gero, eraikina inguratzen duten perimetroko espazio publikoak berregokitzea.

IHG (Sucesores de Bernabe Apestegui) SLPU Arkitektura bulegoak idatzi zuen proiektuaren arabera, erakina nagusian (eraikinen birgaitzea eta sotoaren eraikuntza) egiteko aurrekontua 2.423.235,41 €-koa da, BEZ barne.

Udalak gastu hori aurreikusi egin beharko du 2019ko aurrekontuan, edo hurrengo aurrekontu-ekitaldian urte anitzeko kreditu konpromisoa hartu. Gastuaren zenbatekoak ez duela arazorik eragingo, hurrengo aurrekontuak egiterako orduan kontutan hartzekoa.

3.2. ESTUDIO Y VIABILIDAD ECONOMICA

El ámbito de actuación está urbanizado. No se prevé ninguna carga de urbanización, excepto las pequeñas obras de urbanización vinculadas al edificio y acometidas de las redes y servicios principales, y en el caso de que existieran, adecuación de los espacios públicos que rodean el perímetro del edificio.

El presupuesto de la actuación principal (rehabilitación de las villas y construcción del sótano), es de 2.423.235,41 €, IVA incluido, según el proyecto redactado por el estudio de Arquitectura IHG (Sucesores de Bernabé Apestegui) SLPU.

El Ayuntamiento de Zarautz deberá incluir ese gasto en el presupuesto de 2019, o, en su caso, adoptar un compromiso de crédito plurianual para los próximos ejercicios presupuestarios. Se considera que la cuantía del gasto a realizar es asumible para el ayuntamiento, al objeto de incluirlo en el próximo plan de inversiones.



4

INFORMAZIO PLANOAK ETA ANTOLAMENDU XEHATUKO PLANOAK
PLANOS DE INFORMACIÓN Y PLANOS DE LA ORDENACIÓN PORMENORIZADA

INFORMAZIO PLANOAK

1. Planoa. Kokapena: hirigintza antolamenduko eremua. Eskala: 1/5.000
2. Planoa. Plan bereziko eremuaren mugaketa. Eskala: 1/2500
3. Planoa. Egungo eraikinen lerrokadurak. Eskala: 1/250
4. Planoa. Egungo zerbitzuetako sareak. Saneamendu eta argiztapena. Eskala: 1/250
5. Planoa. Egungo zerbitzuetako sareak. Telekomunikazioak. Eskala: 1/250

ANTOLAMENDU XEHATUKO PLANOAK

6. Planoa. Profilen eta lerrokaduren proposamena (gehienezkoak). Eskala: 1/250

PLANOS DE INFORMACIÓN

- Plano 1. Ubicación: ámbito de ordenación urbanística. Escala 1/2.500
- Plano 2. Delimitación del ámbito del plan especial. Escala 1/250
- Plano 3. Alineaciones de los edificios existentes. Escala 1/250
- Plano 4. Redes de servicio actuales. Saneamiento y alumbrado. Escala 1/250
- Plano 5. Redes de servicio actuales. Telecomunicaciones. Escala 1/250

PLANOS DE LA ORDENACIÓN PORMENORIZADA

- Plano 6: Propuesta de perfiles y alineaciones (máximas). Escala 1/250

Zarautz, 2019ko urtarrilaren 11a
Ion Vicente Waliño, arquitecto,
nº colegiado 4.160